



BAGINA HIDRATATZEA

Bagina hidratatzeko metodoak emakumezkoaren zonalde genitalaren lehortasuna eta menopausian edo estrogenoak murrizten diren egoeratan gertatzen diren nahasmendu atrofikoak tratatzeko erabiltzen dira; sintomak azalaren eta mukosa genitalaren lehortasuna, azkura eta narritadura izaten dira.

Hautatu aukera hauetako bat:


- Colpotrofin® (promestrienoazko baginarako krema).
- Blissel® (estriolezko baginarako krema).

Aplikazioa

Baginan gauero emango duzu, oheratu aurretik, ondoz ondoko 15 egunetan; ondoren, tratamenduarekin jarraituko duzu, astean bi gauetan emanaz (astelehena eta osteguna), modu jarraian.

Nola erabili krema

- Ontziko jarraibideei jarraituz eman dezakezu, berarekin dakarren aplikagailua erabiliz. Hodia aplikagailuari doitu beharko diozu, eta gailuan agertzen den seinalera arte kargatu. Kargatuta dagoenean, baginan sartu behar duzu, eta dosi hori injektatu, enbolon estutuz. Errazagoa da etzanda, ahoz gora, zangoak tolestuta eta apur bat bereizita dituzula aplikatzea. Aplikagailua erabili ondoren, ur epelarekin garbitu behar duzu, hobe iraun dezan eta aurrerantzean erabil dezazun.



- Eskuzko aplikazioa:

Behatzean txitxirio baten tamainako kantitatea jarri, eta baginan sartu; zonaldean masaje arin bat eman.

Ezin badituzu tokiko estrogenoak dituzten kremak erabili, hormonarik gabeko baginako lubrifikatzaile bat erabiliko duzu, kontsultan adierazten zaizun bezala.

Gainera, berariazko lubrifikatzaileak erabil daitezke sexu-harremanetarako (Mucus, Sensilube, HyaluronMucus, eta abar); merkatuan eskura daude, lehortasuna arintzen dute, eta sexu-harremanak errazten dituzte.